txintxarri

2022-11-18 OSTIRALA / 1606. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA WWW.TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

TXINTXARRI

Ostrukak arrainontzian

Formol Laborategiak 'Album' antzezlana ekarri du Manuel Lekuona Kultur Etxera. Gogotik gozatu dute ikus-entzuleek / 5

Euskaraldia, ekiteko garaia

Gaur egingo dute aurkezpen ekitaldia, hilak 18, 19:00etan, kultur etxean; txapa jartze kolektiboa egingo dute, besteak beste / 6

Ehun ekarpen pasatxo egin dituzte herritarrek, Etorkizuna Eraikiz egitasmoak Okendon jarritako kapsulan / 2

'Munduak denontzat beharko luke, baina ez da' liburua aurkeztu du Bizipoza Elkarteak, Usurbilen / 3

Lasarte-Oria elkarrekin eta elkarrengandik ezagutu dute, Impact Hub Donostiak antolatutako ibilaldian / 4

Liburu, disko, jostailu eta abarrez osatutako euskarazko produktuen katalogo aberatsa prestatu dute / 8-9

Texas Lasartearrak irabazi ditu infantil nahiz erregional kategoriako bi derbiak, Michelinen / 10

Intza KEko pilotariak han eta hemen ari dira jokatzen, txapelketa ugaritan; lehen fasea amaitu dute / 12

Markel Olano ahaldun nagusia (ezkerrean) eta Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkatea, prentsaurrean. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

102 ekarpen egin dituzte lasarteoriatarrek

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkatearekin bildu da berriki, Etorkizuna Eraikiz kapsulan jasotako herritarren ekarpenak aztertu eta tokiko ekimen nagusiak ezagutzeko. Ekainaren 17an jarri zuten, Okendo plazan

Txintxarri

Kirolarekin, mugikortasunarekin eta ingurumenarekin lotutako alderdiak daude Lasarte-Oriako Etorkizun Eraikiz kapsulak jasotako kezka nagusien artean. Hala jakinarazi dute Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Agustin Valdivia herriko alkateak. Iragan ekainaren 17an jarri zuten aipatu kapsula Okendo plazan, eta bertan bildutako herritarren iritziak aztertu dituzte.

Lasarte-Oriako biztanleei galdetu zitzaien nola irudikatzen duten Gipuzkoa 2040an, ahaldun nagusiaren hitzetan ezinbestekoa baita gipuzkoarrei entzutea eta gizartearen beharrak, iritziak eta proposamenak jasotzea. Azpimarratu du, horretarako, Etorkizuna Eraikiz proiektua tresna eraginkorra izaten ari dela, eta dagoeneko 26 udalerritan eta unibertsitateko lau campusetan 4.000 ekarpen baino gehiago jaso direla. Horietatik 102 jaso ditu Lasarte-Orian, eta horien artean kirol instalazioen hobekuntzarekin eta aniztasunarekin lotutako proposamenak nabarmendu dira, baita mugikortasuna eta natura zaintzea ere. Azpiegiturekin eta gazteriarekin lotutako alderdiak ere agertu dira eta gazteen aldeko politiken beharra ere gailendu dute herritarrek

Iritzi horiek kontuan hartuz, alkateak azpimarratu du udalarentzat ere badakitela herriko kirol instalakuntzak berritzea "oso garrantzitsua" dela, eta hori hala izanik, gogoraratu du datozen urteetan egingo dituzten inbertsio gehienak arlo horretakoak izango direla.

2016az geroztik martxan

Olanoren esanetan, Etorkizuna Eraikiz programari esker, gobernatzeko modua eraldatzen ari da lurralde osoan. Gaineratu du Gipuzkoaren etorkizuneko erronkei erantzuteko asmoz 2016an proiektu hori abian jarri zenetik, herritarrek aurkeztutako 125 ekarpen bultzatu dituztela. Halaber, jakinarazi du 32 egitasmo esperimental daudela martxan eta bederatzi erreferentzia zentro garatu dituztela erronka sozial eta ekonomiko guztietan eragiteko. Uste du ahalegin horretan, funtsezkoa dela udalerrien eta herritarren parte-hartzea bultzatzea: “Gainerako erakunde, enpresa, eragile sozial eta, oro har, herritarren parte-hartzeak indar handia ematen dio gobernantza eredu berri horri. Guztion ekarpena eta konpromisoa ezinbestekoak dira etorkizuna eraikitzeko”.

GIPUZKOA 2040AN NOLA IKUSTEN DUTEN GALDETU ZITZAIEN ETA HORTIK ETORRI DIRA EKARPENAK

Lasarte-Oriako korporazioa, azaroko ohiko udalbatzar saioan. TXEMA VALLES

Hiru puntu eztabaidatu dituzte azaroko ohiko udalbatzarrean

Urteko hamaseigarren udalbatzarra egin du berriki udalbatzak, azarokoa; azkar batean amaitu dute saioa

Txintxarri

Zarata bibrazioen aurka ingurumena babesteko udal ordenantzaren behin betiko onarpena eztabaidatuz ekin diote azaroko ohiko udalbatzarrari. Agustin Valdivia alkateak eman du horren berri, eta inolako interbentziorik gabe, bozketa egin dute zuzenean. Aldeko zortzi bozka (PSE-EErenak) eta zortzi abstentziorekin (EH Bilduren lau, Elkarrekin Lasarte-Oria Podemosen bi eta EAJren beste bi) onartuta geratu da.

Gai ordenako bigarren gaiari eutsiz, EH Bilduk hartu du hitza; ELOPekin batera aurkeztu duen mozioaren berri eman du Sandra Barkaiztegik. Donostiako Onkologikoaren egoerari eta Osakidetzaren integrazioari buruzko mozioa ekarri dute.

Azpimarratu du azken urteetan aipatu zentroa okerrera egiten ari dela, eta erabiltzaile eta pazienteak lehen pertsonan bizitzen ari direla aldaketa horiek. Horrekin batera, aipatu du zentroa guztiz baztertua dagoela, eta erabil daitekeena baino askoz erabilera gutxiago ematen zaiola; eraikinaren bigarren solairua hutsik dagoela jakinarazi du, 51 geletatik sei edo zortzi baino ez daude okupatuta, eta osasun profesionalek lan jarduera gabezia nabarmena dute".

Gaineratu du aurrez gaixotasunaren lehen diagnostikotik hasi eta froga, tratamendu eta jarraipen guztia onkologikoan bertan egiten bazen ere, egun jarraipen bakoitza leku ezberdinetan egiten dietela gaixoei: "Honek pazienteak egoera nahiko zaurgarrian uzten ditu, leku batetik bestera ibiltzera behartzen dituelarik".

Egoera hori aintzat hartuz, Lasarte-Oriako udalbatzari hiru eskaera egin dizkio. Aldeko sei bozkekin (EH Bilduren lau eta ELOPen lau) eta aurkako hamarrekin (PSE-EEren zortzi eta EAJren bi) ez dute aurrera egin eskakizunek.

Bozka azalpena egiteko hartu du hitza jarraian EAJko kide Jon Antxordokik. Esan du mozioen eskakizunekin bat datorren arren, bere alderdiak (PSE-EErekin batera) landutako mozio alternatiboa "osoagoa" delako eman dutela aurkako bozka. Lourdes Acevedok ere bozka azalpena egin du, Antxordokiren bide beretik. Gaia itxi aurretik, mozio alternatiboa aurkeztu dute, eta bozketa egin. Aldeko hamar bozka (PSE-EE eta EAJ), lau abstentzio (EH Bildu) eta aurkako birekin (ELOP) aurrera egin du.

Saioa amaitu aurretik, eta ohi bezala, galdera eta erreguak egiteko tartea zabaldu dute, eta hainbat izan dira oposizioko alderdiek mahaigainera atera dituzten gaiak.

Udalbatzar saioa osorik ikusi nahi duenak, honako helbidean egin dezake: www.youtube.com/watch?v=SiiigD4L5b0.

Gogoeta sorta batekin osatu dute liburua

Usurbilen ezagutarazi dute lana, Potxoenea Kultur Aretoan. Bertan izan dira Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Bizipoza Elkarteko koordinatzaile Leire Elizegi, Peio Manterola ikertzailea eta Amagoia Mujika idazlea

Usurbilgo Potxoenea Kultur Aretoan egin dute liburuaren aurkezpena. BIZIPOZA

Txintxarri

Aurkezpenari hasiera emateko, Agurtzane Solabarrieta alkateak hartu zuen hitza, eta mahaikideak aurkeztu ostean, azaldu zuen liburuan planteatzen diren hainbat galderen antzekoetatik tiraka ari direla Usurbilen, zaintza ereduarekiko lanketa egiten. Gai horrek ertz asko dituela azpimarratu zuen, eta, uste du "ezinbestekoa" dela zaintzak modu integralean ulertu eta begirada horretatik heltzea: "Hala ari gara Usurbilen, zaintza ekosistema oso eta berri bat eraikitzeko lanketa betean gabiltza azken bizpahiru urteotan".

Bizipozako koordinatzaile Leire Elizegik hitz egin zuen gero, eta esan, *Munduak denontzat beharko luke, baina ez da liburua* azken urteetako lanaren emaitza izateaz gain, aurrera begirako Bizipozaren ibilbidearen oinarria izango den erreferentzia ere badela.

Ikertzaileak, Peio Manterolak, berriz, ikerketaren hasieraren berri eman zuen. Kontatu zuen Joxe Garmendia EHUko irakaslearen bidez jaso zuela Bizipozaren inguruan egin nahi zuten ikerketaren berri, eta, gaineratu, hasieratik izan zituztela garbi lanaren oinarriak zeintzuk izango ziren. Horiek ere ezagutarazi dituzte: elkarteek protagonismoa izatea eta eurei hitza ematea. Kontatu du baita ere, ikerketa burutzeko Bizipoza osatzen duten elkarte guztiei galdetegi kualitatibo bat pasa zietela. Lan horretatik atera zuten premisa garbi bat; elkarteak sortzen badira, bete gabeko beharrak daudelako eratzen direla.

Ondorio horretatik abiatuta idatzi du Amagoia Mujikak liburua, eta horren gainean hitz egin zuen, agerraldia amaitzeko. Esan zuen Manterolaren ikerlanetik ateratako harietatik tiraka josita gogoeta sorta bat dela, eta ez duela erantzunik ematen, galderak mahaigaineratzen baizik. Azpimarratu zuen Ongizate Estatua deitzen denak josi duen sare publikoak ez dituela herritar guztien beharrak asetzen.

Bizipoza elkarteak *Zaintza sistema publiko-komunitarioa: elkarrekin hausnartzen, partekatzen eta eraldatzen* jardunaldiak iragarri ditu hilaren 26rako, eta bertan parte hartzeko izena ematen dutenei liburu bana banatuko dietela jakinarazi dute. Inskripzioa honako helbidean egin dezakete interesdunek: *www.labur.eus/bizipozajardunaldia.*

XUMELA

Kantu ibilbidea, irudietan

Hamasei urte igaro dira Lasarte-Orian Xumela korua sortu zenetik. Orduz geroztik ez da festarik igaro herrian beraien abestirik gabe. 45-50 lagun inguru elkartzen dira astelehenero Landaberri Oriarte institutuan 19:30ean. Ondo pasatzeko, bizitzari alaitasun puntu bat emateko eta euskal kantu tradizionalak abesteko asmoarekin. Urtean zehar antolatzen dituzten egitasmoetan are handiagoa izan ohi da taldea, 70 bat partaide izateraino, bideoklipean ikus daitekeen moduan.

TXINTXARRI

Zuzeneko salmentarako gune

Behemendi elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, IX. Baserriko Produktuen Azoka aurrera eraman zuten Okendo plazan. Bertan, 11 ekoizlek jarritako zortzi postu izan ziren eta haietan barazkiak, eztia, ukenduak edota gozoak erosteko aukera izan zuten herritarrek. Jenderik ez zen falta izan, baina pilaketarik gabe, lasai begiratu, hautatu eta erosteko aukera izan zuten lasarteoriatarrek. Ekoizleekin hitz egin, galdetu edo produkturen bat probatu eta erosi ere egin zuten zenbaitek.

Jalgi taberna alokatzen du
Ttakun Kultur Elkarteak

Interesa baduzu jarri gurekin harremanetan azaroaren 20ra arte

Geltoki kalea 4, behea bulegoan | Tel: 943-37 14 48
09:00-13:00 eta 16:00-18:00 (astelehen goiza eta ostiral arratsaldea izan ezik).
ttakun@ttakun.eus

Parte hartzailea izan da Impact Hub Donostia kooperatibak antolatutako ibilaldia. TXINTXARRI

Herria elkarrengandik eta elkarrekin ezagutzen

Lasarte-Oriako bazterrak, historia eta hirigintza eredua sakonago ezagutu dute dozenaka herritarrek, Impact Hub Donostia kooperatibak antolatutako Herritarren ibilaldian. Euskotren geltokiaren atarian elkartu, eta handik herriko hainbat txokotara joan dira

Txintxarri

Jane Jacobsen *Muerte y vida de las ciudades* liburua eskuetan, ibilbidea kazetari estatubatuarraren betaurrekoak jantzita egitera gonbidatu ditu Victor Aspe arkitektoak irteera puntuan bildu diren 40 bat lagunak. Alegia, gogoeta egitea proposatu die, esaterako, zergatik bizi da jendea auzo batzuetan beste batzuetan baino gehiago? Hori lehen galdera izan da, baina inondik ere ez bakarra. Berak proposatua edo bueltan jasoa, gainera. Izan ere, gidari lanak egin baditu ere, Aspek lehen unetik argi utzi die partaideei asmoa ez zela berak azalpenak eman eta bertaratutakoek entzutea, elkarrizketa piztea baizik, berak esandakoa zabaldu edo zuzentzea, beharrezkoa bazen. Hitz horiek esan dizkienean, ez zekien biak lortuko zituela. Ez hori bakarrik, berak galduko zituela bazekien solasaldi asko ere izan dira ibilian-ibilian parean egokitu direnen edo elkarrekin joan direnen artean. Paperean jasotzeko eskatu die, baina boligrafoa gutxi erabili dute... Kazetariak entzundakoen artean, adierazgarri bat: halakoetan parte hartu ondoren, lekuak ez ditugula berriro berdin ikusten.

Lasarte-Oria, "herri bizia"

Bidegorritik behera joan dira Oriartera eta handik Iñigo de Loyola kaleko plazara. "Saltokirik ba al da? Zer saltzen dute? Irekita ala itxita daude?" bota die bidean inguruan zituenei. Geldiunean, Lasarte-Oria "herri bizia" dela esan du, denda txikiak badirelako, eta ez elikagaienak bakarrik. Eserlekuak zabalgunean errepidetik gertu daudela ohartarazi eta Jacobsen beste ideia bat gogora ekarri du Aspek: Jendea jendea dagoen lekuan egoten da, hau da, eraikinaren atzeko aldea lasaiagoa bada ere, plaza nahiago izaten dugu, jendea dabilen lekua.

Geltoki kalea, Michelin, Oria ibaiertza... Asko izan dira taldeak bisitatu dituen tokiak. Anekdota, gogoeta eta galderak ez dira falta izan, ibilaldi osoan bezala.

NOAUA ALDIZKARIA

Arkaitzerrekara joan dira

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformaren deiari erantzunez, zenbait herritar Arkaitzerrekan izan ziren hilaren 12an, Zubietako erraustegiaren azpitik igarotzen den errekastoan. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak antolatu zuen ibilaldia; Usurbil eta Zubietatik joandako bi zutabetako kideak elkartu ziren han. Usurbilgo *Noaua* aldizkariak ekintzari buruzko kronikan jaso zuenez, egun horretan ere "gorritsu, zikin eta kutsatuta" zegoen errioa; "kiratsa" zerion.

Aire Garbiak gogorarazi du manifestazioa antolatu duela GuraSOS-ek hilaren 27rako, Donostian. Bulebarrean elkartuko dira, 12:00etan.

TXINTXARRI

Autodefentsa ikasi eta landu dute

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira Lasarte-Oriako Udalak antolatutako ekimenen lehena egin dute: autodefentsa feminista tailerra aurrera eraman dute, Emagineko kide batek gidatuta.

Bestalde, Asunak talde feministak iragarri du manifestazioa egingo duela hilaren 25ean, Okendo plazatik abiatuta, 19:00etan.

Topatutako ferrak erosketa bonuengatik trukatu dituzte

Ferraren bila kanpainako sariak banatu ditu Aterpeak, eta iragarri Black Friday-rekin bat egingo duela hilaren 25ean

Txintxarri

Ferraren bila egitasmoko sariak banatu ditu Aterpea elkarteak, Kale Nagusian dagoen Eli Lasa farmaziaren atarian. Herriko merkataritza sustatzea xede duen eragilearen lehendakari Miguel Angel Prietok nabarmendu duenez, "handia" izan da parte hartzea, eta "200 argazki baino gehiago" igo dituzte bezeroek sare sozialetara, erosketa bonuak irabazteko zozketan sartzeko ezinbesteko baldintza. Horietako batzuek 25 euroko hamarna txartel eskuratu dituzte.

Hauek izan dira saridunak: Ttakun Kultur Elkartea (bertako langile Irati Zatarainek jaso du saria), Esther Sanchez, Cristina Rodriguez, Jone Gonzalez, Mikel Naya, Esther Roscales, Olaia Rekondo eta Izaro Pellejero.

Bestalde, Aterpeak iragarri du Black Friday egitasmoarekin bat egingo dutela hogei bazkide inguruk hilaren 25ean, ostiralez. Eskaintza bereziak prestatuko dituzte bezeroentzat.

Eli Lasa farmaziaren atarian banatu dituzte sariak. TXINTXARRI

Albumean gordetzeko emanaldi berezia

'Album' antzezlanaren emanaldia egin du Formol Laborategiak Manuel Lekuona Kultur Etxean, obra hori antzokiz antzoki erakusten hasi eta urtebetera. Emanaldi berezia izan da Lasarte-Oriakoa, taldeko kide Intza Alkain herritarrarentzat batez ere

Txintxarri

Formol Laborategiak *Album* ikuskizuna ekarri zuen Manuel Lekuona Kultur Etxera hilaren 12an, larunbatarekin. Urtebetez antzokiz antzoki eraman dute obra Intza Alkain eta Mikel Ibarguren aktoreek, eta ia bete den auditorioko eszenarioan antzeztu dute Edurne Azkaratek zuzendutako lana. Eszenografia sinple eta xumean, *millennial* gazteen iruditeria bat islatu dute. Zalantzak, beldurrak, galderak, motxilak... Norbera dena edo besteek espero duten hori izateak sortzen duen noraezean aurrera egin nahi duten pertsonaien bakarrizketa eta solasaldien parte izan ziren ikus-entzuleak.

Ordubete pasatxo iraun zuen emanaldia bukatu zutenean, Formol Laborategiko hiru lagunek egindako lanaren saria jaso zuten: txalo zaparrada luze eta ozena, eta baita lehenengo ilarako ikus-entzuleek jaurtitako arrosa zuri batzuk ere. Beste behin, mikrofonoa hartu zuen Alkainek, baina ez antzezteko, bizitakoak eragindako sentimenduak parean zituenekin partekatzeko baizik. Hunkituta, eskerrak eman zizkien aretora bertaratutako guztiei: "Espero dut ondo pasa izana, den-denak ezagutzen zaituztet!". Emanaldi berezia izan zela azpimarratu, eta *Album*-en urteurrena ospatzeko prestatutako luntxera joatera gonbidatu zituen ikus-entzuleak. Photocall eta guzti, une eder batzuk gehiago jaso zituzten bilduman.

"Amaieraren hasiera"

Formoleko lagunek iragarri berri dute *Album*-en birari amaiera ematea erabaki dutela, eta sei emanaldi gehiago egingo dituztela, aurtengo abendu eta hurrengo urteko urtarrilean zehar. "Agur luzeak izaten dira elkar askatu nahi ez dutenen artean, eta formoldarrek zuekin bizi nahi dute despedida hau".

Mikel Ibarguren eta Intza Alkain, dena ematen oholtzan. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako emanaldiaren kartela egin zuten. TXINTXARRI

TXINTXARRI

Erriberrin ariko da Alboka Abesbatza

Abesbatzen Musika Hamabostaldian parte hartuko du Alboka Abesbatzak larunbat honetan, hilak 19, Erriberrin (Nafarroa). Coral Olitense taldearekin egingo duen elkartrukearen barruko lehen emanaldia izango da hori. 20:00etan hasiko da, Santa Maria elizan. Sei abestiko errepertorioa prestatu dute lasarteoriatarrek.

Iruñeko Ganbara, Coral Olitense eta Alboka Abesbatza ariko dira larunbatean. Talde horietako bakoitzak programa propio bat prestatu du. Hau izango da lasarteoriatarrena: *Kyrie*, Piotr Janczak; *Hanaq pachap Cussicuini*, anonimoa (Lima, Peru, 1631); *Jana erthi viti ir*, Albaniako doinua, Edoardo Materassi-k moldatutako pieza; *Ecce novum*, Ola Gjeilo. *City of stars* (*La la land* filma), Justin Hurwitz-ek sortua eta Roger Emerson-ek moldatua; eta *Lau teilatu*, Itoiz, Javier Gonzalez Sarmientok moldatua. Montse Latorrek zuzendutako taldeak Amaia Dorronsoro piano jotzailearen laguntza izango du abesti horietako batzuetan. Horrez gain, abesbatzako partaide diren Mikel Urreizti eta Elena Eguileta solista gisa ariko dira *City of stars* kantuan.

Arestian aipatutako hiru abesbatzek David Azurzaren *Dantzantik* obra abestuko dute, estreinakoz, emanaldiari amaiera emateko. Hori ez da izango Albokak hemendik eta urte amaierara arte emango duen azken kontzertua izango: taldeko kideek jakinarazi dutenez, Santa Zezilia egunekoa eta Eguberrietako emanaldi berezia prestatzen ari dira (abenduan izango da azken hori), besteak beste.

TXINTXARRI

Akordeoia eta tronpeta, bikote

Victor Vigo akordeoi jotzaileak eta Jesus Nuñez tronpetistak kontzertua eman zuten Ama Brigitarren komentuko kaperan, hilaren 11n. Danok Kide gurasoen elkarteak antolatutako XVII. Musika Topaketetako bigarren saioa izan zen: doinu klasikoak eta bertakoak batu zituen errepertorioak. Emanaldiaren bigarren zatian euskal kantei tartea egin diete, *Haurtxo polita* eta *Ene Izar Maitia*-ri, kasu.

Acha-Orbea farmazia.

Ana ile apaindegia.

Asunak talde feminista eta Transmaribollo taldea.

Berasategi kafeak.

Caja Laboral Euskadiko Kutxa.

EAGI eraikuntza eskola.

Kutxabank.

Lasarte-Oriako Berritzegunea.

Maite Erkizia Estetika.

Ormazabal loradenda.

Ostadar Ipar Martxa.

Patxi Larrañaga harategia.

Ttakun Kultur Elkartea.

Udal Euskaltegiko ikasle talde bat.

Xumela koruarena, arigune jendetsua.

Argazki guztiak ikusteko, gerturatu sakelakoa hona

Iritsi da Euskaraldia, iritsi da lasarteoriatarrek ere hitzez ekiteko garaia

Euskararen 10. Maratoialdiaren hirugarren eta azken fasera ailegatu gara, Eta ekin izenekora, abenduaren 2ra arte luzatuko den horretara. Izenak ongi dioen moduan, euskaraz ekiteko garaia da, azken asteetan sentitu eta prestatutako guztia praktikan jartzekoa, Euskal Herri osoan aurrera eramango den hirugarren Euskaraldiarekin batera. Kontzeptu hori nabarmentzen du baita ere hizkuntza ohiturak astintzea helburu duen ariketa sozial horrek: *Hitzez ekiteko garaia* da, euskararekiko jarrera aktiboa erakusteko unea, euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan mintzatzeko momentua.

Norbanakoek nahiz entitateek parte hartuko dute hirugarren Euskaraldian. Ahobizi edo belarriprest izan, horra egin beharreko aukera: lehenengo hitza euskaraz egin, ala gainerakoei adierazi mintzatzeko gai ez izanagatik, ulertzeko gaitasuna adierazi eta elkarrizketak euskaraz izateari bide eman. Denda, enpresa eta erakundeek Ariguneak eratu dituzte, euskaraz lasai aritzeko eremuak alegia, eta ez gutxi, goiko aldeko argazki galerian ikus dezakezuenez. Horren harira, esan ezin izan ditugula den-denak bildu paperean, baina bai *www.txintxarri.eus* atari digitalean.

Txapa jartze kolektiboa

Euskaraldiaren herri mailako aurkezpen ekitaldia egingo dute gaur, hilak 18, arratsaldeko zazpietan, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Bea Egizabal eta Intza Alkain izango dira aurkezleak, orain dela ez asko Antonio Mercero gunean izandako guruzaleak, abenduaren 2ra arte egingo dugun ariketarako aholkuak eman dituztenak. Zer prestatu duten, auskalo, baina umorerik ez da faltako, hori ziur. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak jakinarazi dutenez, ekitaldi horretan ahobizi eta belarriprest

Herritarrek Okendo plazako arkupeetan jaso dituzte txapak. TXINTXARRI

txapen jartze kolektiboa egingo dute, eta Euskaraldian parte hartuko duen oro gonbidatu dute kultur etxera bertaratzera.

Euskaraldian zehar iparra ez galtze aldera, guruzaleek emandako aholkuak gogoratu ahalko dituzue esteka honetan: *https://txintxarri.eus/lasarte-oria/1666959915103-euskotxitak-etor-zaitezte-gurutzaldira.* Animatu hitzez ekitera! Salda badago!

BLACK // FRIDAY

multiópticas

kalitatea - konfiantza - diseinua

Zure ikusmena zaintzea garrantzitsua da urte osoan, baina azaroan zure betaurrekoak, ukipen lenteak, eguzkitako betaurrekoak eta osagaiak preziorik onenenan berritu ditzakezu

%20 DESKONTUA

BETAURREKO GRADUATUETAN

+

2. BETAURREKO OSOA OPARI

Bisita gaitzazu eta deskubritu MÓ gure armazoien marka. Gure optikan, esklusiboki, 1.000 modelo ditugu aukeratzeko. Deitu eta hartu txanda.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA
www.multiopticas.com

Katalogoa, euskal sorkuntzaren erakusleiho bizia

Liburuak, jostailuak eta jokoak, musika, filmak, komikiak, aldizkariak, e-bookak, informatika eta app-ak, gurasoentzako materiala... 0-16 urte artekoentzako milaka produktu, guztiak euskaraz, klik bakarrera, 'www.katalogoa.eus' web orrialdean

Katalogoak euskarazko ekoizpenari ikusgarritasuna ematen dio. Beharbada hori da helburu nagusietako bat.

Euskarazko produktuen bilduma aberatsa dugu eskura sarean urte osoan *www.katalogoa.eus* atarian, nahi dugun hori aurkitzeko bilaketa sistema erraz batekin. Urtean behin, azaroan, web orrialdean dagoen eskaintza zabal horren lagin bat papereko edizioan jaso eta herriz herri zabaltzen dute Hego Euskal Herrian barrena, egitasmoan parte hartzen duten lau herrialdeotako udal eta mankomunitate hainbatek. Tartean Buruntzaldean, prestaketa eta banaketa lanez arduratzen diren Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalen eskutik.

Ikastetxeetan nahiz udal zerbitzuetan uzten dituzte, herritarrek eskuratu eta etxeetara eramateko. Katalogoaren papereko ediziorako materialen hautaketarako lantalde bat dute. Disken aukeraketaz arduratzen da Jon Eskisabel. Argitaletxe nahiz autoekoizpen aldetik dagoen sorkuntza jario etengabetik 32 lan hautatu behar izaten ditu, 12-16 urte arteko gazteei zuzendutako eskaintza biltzen duen esku-orrirako, dozena inguru 0-12 urte arteko haurrei zuzendurikoan. *Badok.eus Berria*-ren euskal musikaren atarian lan egiten jardundakoa, erreferentziagune gisa baliatu izan du webgune hau *www.katalogoa.eus* elikatzeko. "Astero argitaratzen ziren diskoen gainean egon naiz. Informazio asko nire ohiko lanetik jasotzen nuen. Argitaratzen zihoana Katalogoaren webgunera igotzea", horixe izan da bere egitekoa.

Sorkuntza lan bakoitzari informazioa eransten dio; norena den, nork argitaratua, non eskura daitekeen...

"Oreka bat mantentzen saiatzen gara"

Sarean ere lan bera egiten du Eskisabelek, baina hautaketa lan hain zorrotzik egin beharrik izan gabe. Bai autoekoizpenak, baita argitaletxeek plazaraturikoak ere, "denak igotzen ditut. Baina argitaratzen diren asko gero ez daude salgai sarean". Hortxe, lerrootan mintzagai dugun atariak duen muga saihestezina; webgunearen logika, erakusleihoa izateaz gain, euskarazko produktuok gero salerosketan jartzen dituzten argitaletxeetara bideratzea baita. Bistan denez, ordea, autoekoizpenen kasuan ez da posible. Horregatik, diskoen kasuan, katalogoan argitaratua izateko baldintza nagusia, betebeharreko euskararen irizpideaz gain, sarean salgai egotea da. "Lan autoekoitzi asko dago kontzertu edo tabernetan saltzen dituztenak eta zaila da Interneten erostea. Horregatik horiek normalean ez ditut zintzilikatzen", dio Eskisabelek. Gainerakoan, bereizketarik ez du egiten, "ez estilo, jatorri, oihartzun, edota taldearen tamainaren aldetik. Halako oreka bat mantentzen saiatzen naiz".

Ikusgarritasuna, hedapenerako giltzarri

Lanketa hau guztia zertarako baliagarria den galdetu diogu Eskisabeli. "Euskarazko ekoizpenari ikusgarritasuna ematen laguntzen du. Beharbada hori da katalogoaren helburu nagusietako bat". Erakusteko dagoena ez da eskaintza urria. "Ekoizpen hori guztia zabaltzen laguntzea, ikusgarritasuna eman eta jendearengana heltzea, hori da xede nagusia. Ikusgarritasun horrek emango dio gero ekoizpen horri bultzada, kontsumitua izateko aukera, jendeak hautatzeko modua izan dezan. Ikusgarritasunik gabe ez dago ezer". Horregatik bere ustez, "inoiz baino beharrezkoagoa da hori bermatzea".

Ildo horretan, halako egitasmo gehiagoren beharra sumatzen du Jon Eskisabelek. "Euskal Herri osoko eskualde eta herrietan antzeko ekimenak martxan jartzea ez legoke gaizki. Sekulako ezagutza falta dago, lan handia egiteke".

Aisialdia euskaraz bizitzeko

Euskarazko Produktuen Katalogoa Nafarroan sortu zuten, euskara teknikariak biltzen dituen mankomunitatetik, aisialdirako dauden euskarazko produktuen berri eman asmoz gurasoei, eta sortze lanon salerosketa bultzatzeko, "azken batean, gaztetxo horiek aisialdia euskaraz bizitzeko", Malores Etxeberria Hernaniko Udaleko euskara teknikari ohiak azaldu digunez. Duen eskaintza eta hedadura aintzakotzat hartuta, Euskal Herrian bereizgarriok dituen proiektu bakar honetara batu ziren Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietako udalak. "Gustatu egin zitzaigun eta haiekin hartuemanetan jarri ginen, parte hartzeko aukera izango genukeen jakiteko", eta halaxe hasi ziren, jada mende laurdena betetzear duen katalogoan esku hartzen. Nafarroatik eskualde honetara jauzi egin zuen proiektuak. Eta denborarekin, Buruntzaldetik "Gipuzkoara, Bizkaira eta Arabara zabaldu zen".

Aztikerrekin eginiko azterlantxoak agerian utzi zuen katalogoak euskarazko produktuen salerosketetan bazuela eragina, eta beste datu esanguratsu bat; paperak agintzen zuela oraindik, digitalizazioaren aldeko apustua egin duten arren.

Egun, udalerri parte hartzaileen zenbatekoa "kopuru politean mantentzen da". Baina badira katalogoaren ordez, *www.katalogoa.eus* webguneak harpidetzen bidez eskaintzen duen pdf-a eskuratu nahi izaten duten udalerriak. Egitasmoaren bideragarritasunean eragiten du horrek, izan ere papereko edizioak ordaintzen ditu egitasmoaren gastuak. Dagoen eskaintza "erauntsi horretan leku bat bilatzea oso zaila da", baina hor dirau mende laurdenez katalogoak. Halako izaera duen egitasmo bakarra Euskal Herrian. Ibilbide luze honen gakoa nabarmendu digu Malores Etxeberriak. "Elkartzeak eta aurrez aurrekoak egiten du proiektuak aurrera ateratzea eta horrek badu balio bat", 25 urte betetzear dituen Euskarazko Produktuen Katalogoak argi utzi duen moduan.

MURGILDU, AURKITU, GOZATU!

0-12 urte

JOSTAILU ETA JOKOAK
MUSIKA
DVD FILMAK
APP-AK
ALDIZKARIAK
LIBURUAK
GURASOENTZAKO
MATERIALA
KOMIKIAK

EUSKARAZKO PRODUKTUEN

KATALOGOA

2022-2023

Texas Lasartearrak, bi derbiak poltsikora

Ostadarren eta Texas Lasartearraren arteko bi derbiz gozatu ahal izan dute zaletuek, berriki. Infantil mailako lehia 1-5 amaitu da. Erregional I. mailako norgehiagoka, aldiz, borrokatuagoa izan da; Texasek partidari itzulia eman eta 3-4 irabazi du

Txintxarri

Derbia neurketa berezia da Ostadar eta Texas Lasartearra herriko taldeentzat. Bi taldeetako zaletu eta senideak batzen dira Michelin kirol guneko futbol zelaian, animatzeko. Ohikoena da neurketa bakarra izatea; hilaren 12an, bitan eman zen norgehiagoka hori, ordea. Kategoria ezberdinetako bi derbi izan ziren; goizean, infantil I. mailakoa eta arratsaldean, Erregionalen arteko lehia. Bietan Ostadarrek jokatu zuen etxeko talde modura eta bietan Texas Lasartearra izan zen garaile.

Infantil kategoriako Ostadar A-Texas Lasartearra norgehiagokak eman zion, beraz hasiera jardunaldi bereziari.Haize bortitza izan zen protagonista eta Texaseko prestatzaile Ander Acuñak aipatu modura, "zaila egin zitzaigun baloia jokatzea".

Defentsan sendo ari ziren bi taldeak. Alabaina, Texasen atzeko lerrokoen huts batengatik talde urdin-beltzak aurre hartu zuen. Baloi luze bat aldendu nahian, komunikazio faltagatik, zuri-urdinen atzelarietako bik talka egin zuten, eta hori baliatuz Ostadarrek markagailua ireki zuen. 1-0 iritsi ziren atsedenaldira.

Texas Lasartearra taldeko jokalaria, baloiarekin ihes egin nahian. TXINTXARRI

Egoera ikusirik, Texaseko entrenatzaile Acuñak aldaketa batzuk egin zituen bigarren zatiari begira, eta estrategiak bere fruitua eman zuen. Bi gol jarraian egin zituen talde zuri-urdinak.

Horrek lasaitasuna eman zion kanpoko bezala jokatzen zuen taldeari. Ostadarreko jokalariek, aldiz, kolpe latza jaso zuten. Ostadarren infantilen arduradun Javi Frailek adierazi digunez: "Lehen zatia 1-0ko emaitzarekin amaitzeak indarra eman zien haurrei, bigarrenari begira. Texasek berdinketa lortu zuenean animoa galtzen joan ziren eta bigarren golak moralki eragina izan zuen jokalariengan".

Ondorioz, minutuak aurrera joan ahala ate aurrera gehiagotan iritsi zen Texas, eta beste hiru alditan gainditu zuen Ostadarreko atezaina. Horregatik guztiagatik, 1-5 amaitu zen norgehiagoka.

Egindakoaz harro

Texas Lasartearrako prestatzailea Acuña pozarren dago lortutako emaitzarekin. Bildutako puntuek sailkapeneko bigarren postura igo dute talde zuri-urdina eta horrek hurrengo neurketetarako indarra emango diela adierazi du: "Ilusio handiarekin prestatuko ditugu datozen partidak, sailkapenean lehenengo doazenak guk baina hiru puntu gehiago soilik dituztelako".

Ostadarren infantilen arduradun Javi Frailek aurkaria zoriondu du: "Hobeak izan dira eta garaipena merezi izan dute, egin duten bigarren zatiagatik".

Era berean, jokalariek egindakoaz harro dagoela onartu du Frailek: "Gure gaztetxoek egin dezaketen jokoa egin zuten. Bigarren zatian, aldaketak egiterakoan, joko mailan nabaritu genuen. Baina ikasten ari dira eta hori da garrantzitsuena. Esperientzia ere bada eurentzat".

Partida zirraragarria

Arratsaldean, Erregional I. mailako norgehiagoka interesgarria ikusi ahal izan zuten zaleek kirol guneko zelaian; azken minutuan, eskuratu zuen Texas Lasartearrak derbia, 3-4.

Ostadar izan zen nagusi lehen zatian eta arrisku egoera ugari sortu zituen. Erdialdean, gainera markagailuan aurreratu zen; talde zuri-urdinaren atera baloia sarera bitan sartu zuten Mikel Zarragaren jokalariek.

Atsedenaldiaren ostean, indartsu atera zen Yonatan Monroyk zuzendutako taldea eta urdin-beltzen defentsako bi huts baliatuz neurketa berdindu zuen, indarrak parekatuz.

Aukera ugari izan zituzten biek baina amaitzeko 20 minutu falta zirela, hirugarren gola egin zuen Ostadarrek. Gutxira, epaileak Texasen aldeko penalti bat seinalatu zuen eta zuri-urdinek ongi baliatu zuten hirugarren gola egiteko.

Bi taldeak garaipena eskuratzeko borrokatu ziren azken minutura arte eta Texasen erregionalak eraman zuten saria, Ostadarreko atea laugarrenez zulatu ostean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Urnieta KE - Ostadar SKT
Igandea. 11:30. Urnietan.

GORENGOEN MAILA

Santo Tomas Lizeoa - Ostadar SKT
Larunbata. 19:15. Berio, Donostian.

ERREGIONAL 1. MAILA

Idiazabal KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Arizkorreta, Idiazabalen.
Texas Lasartearra CF - Intxurre KKE
Larunbata. 19:45. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Ekintza
Igandea. 18:55. Michelin kirol gunean.

JUBENIL 1. MAILA

Ostadar SKT C - Ordizia B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
Urnieta KE B - Ostadar SKT B
Larunbata. 16:00. Urnietan.
Lagun Onak CD B - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 17:30. Garmendipe, Azpeitian.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Real Union Club SAD
Igandea. 17:10. Michelin kirol gunean.

KADETE 1. MAILA

Ostadar SKT B - Marteutene KE B
Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Euskalduna B
Igandea. 13:50. Michelin kirol gunean.
Kostkas KE D - Ostadar SKT C
Igandea. 10:00. Matigoxotegi, Donostian.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Urnieta KE - Ostadar SKT
Larunbata. 11:00. Urnietan.

INFANTIL TXIKI, 2. FASEA

Ostadar SKT - Orioko FT
Igandea. 15:35. Matigoxotegi, Donostian.

INFANTIL 1. MAILA

Texas Lasartearra CF - Danena KE
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
Ostadar SKT B - Tolosa CF A
Larunbata. 18:10. Michelin kirol gunean.
Tolosa CF B - Ostadar SKT A
Larunbata. 10:45. Usabal kirol., Tolosan.

INFANTIL F8

Hernani CD - Ostadar SKT
Larunbata. 09:00. Zubipe, Hernanin.

ARETO-FUTBOLA

1. MAILA

Antiguoko KE Fontaneria Iribarren - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones
Ostirala. 20:50. Pio Baroja, Donostian.

2. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Miren Taberna OKE
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Eguzki Bodegas Ayesa - Anoeta FT
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA

Eguzki AF - Ingou Aloña A
Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

SENIOR 3. MAILA

Astigarragako Mundarro - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Astigarragako kiroldegian.

JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA

Erroibide Urbycolan - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Azken Portu, Irunen.

JUNIOR PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Inar Optika ISB
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT - GSR Ointxe!
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA

TAKE Ernio - Ostadar SKT
Larunbata. 10:45. Usabal kirol., Tolosan.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

Ostadar SKT - Easo Basket Irulea
Larunbata. 12:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA

Ostadar SKT Urdina - Goierri Goierribus
Larunbata. 10:10. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL PARTAIDETZA

Ostadar SKT Beltza - Easo Basket Urgull
Larunbata. 09:40. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

ESKUZ BANAKA, JUBENIL 2. MAILA

Intza (Urdanpilleta) - Gazteleku
Larunbata. 12:00. Michelin kirol guneko pilotalekua.

BOLE|BOLA

EUSKAL MAILA, SENIOR

Ostadar SKT - Hernani KE
Igandea. 11:00. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL MAILA, 2. SENIORRA

Ostadar SKT - Galdakao BT
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

JUBENILA

Aldapeta Maria A - Ostadar SKT
Igandea. 11:00. Aldapeta Maria ik., Donostian.

KADETEA

Ostadar SKT B - Tolobolei C
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT A - Tolobolei A
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTILA

Ostadar SKT A - Arantzazuko Ama BHI
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT B - Harresi
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

IGERIKETA

AXA LIGA

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek Axa Paralinpiar Ligako bosgarren jardunaldia lehiatuko du.
Larunbata eta igandea. Cadiz, Andaluzian.

ALEBIN LIGA

Buruntzaldea IKTko alebinek ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute
Larunbata. 18:15. Majori kirol., Ordizian.

KZL/TEST LIGA

Buruntzaldea IKTko benjaminek KZL/ Test Ligari hasiera emango diote.
Larunbata. 15:30. Majori kirol., Ordizian.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Gaztedi RT - Ges. Okelan Zarautz Beltzak
Larunbata. 16:00. Gamarra, Gasteizen.

18 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak - Gernika RT/ Arratiko Zekorrak
Larunbata. 16:30. Michelin kirol gunean.

16 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak RT - Gernika RT
Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.

14 URTEZ AZPIKOA

Zarautz Beltzak RTko taldeak hiruko bat jokatuko du.
Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.

Intzako pilotariek lehen fasea amaitu dute

Errendimenduko zein Ezker Hormako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute Intza KEko pilotariek. Alebin mailan, Oier Jauregik lehian aurrea egingo du; gainerakoek Mendialdeko lehiaketa jokatuko dute. Jubenil bikoteak txapelketatik kanpo geratu dira

Txintxarri

Gipuzkoako Ezker Hormako eta Errendimendu mailako txapelketetako lehen fasea amaitu da. Hilaren 11n eta 12an, alebin kategoriako banakako zein jubenil mailako bikotekako azken neurketak jokatu zituzten Intza Kirol Elkarteko pilotariek. Michelin kirol guneko pilotalekuan, Zizurkilen eta Lazkaon izan zituzten neurketak. Lasarte-Oriako ordezkariek zorte ezberdina izan zuten.

Txikien lehiak eman zion hasiera Michelin kirol guneko pilotalekuan jokatu ziren norgehiagokei. Oier Jauregik Txapagain-eko Agirre izan zuen aurrez aurre. Partida borrokatua izan zen eta lehen zatia 5-8 galdu zuen arren, bigarrenean eta hirugarrenean aurkaria gainditu zituen (8-3 eta 4-1).

Bigarren neurketan, ordea, bestelakoa izan zen emaitza. Jubenil kategoriako Olazabal-Elosegi bikoteak ezin izan zuen Gazteleku gainditu. Herriko pilotariek jardun irregularra izan zuten eta hortaz baliatu ziren aurkariak gailentzeko; 7-22 amaitu zen partida.

Lazkaon izan zen alebin I. mailako buruz burukoan ere ez zuen zorterik izan Huizi-Fernandez taldeko kideak.

Intzako pilotaria, jokatzen. TXINTXARRI

LAPKEko Izagirre 8-4 eta 8-4 gailendu zen. Zizurkilen ere Intzaren alebin II. kategoriako Maiz-Lasa bikoko ordezkariak ezin izan zuen Ziotzako Ezkioaga garaitu (8-1 eta 8-5).

Bestalde, Itxaso Iparragirrek eta Markel Lopezek osatutako bikoteak atseden izan zuen. Jose Felix Solano Intzaren arduradunak jubenil I. mailako bikoteak txapelketa utzi behar izan duela era jakitera eman du: "Haritza Diaz de Gereñuk eskuetan arazoak izan ditu eta bi neurketetan ezin izan ginen aurkeztu. Beraz, lehiaketatik kanpo geratu ginen".

Bestelako lehiak

Gauzak horrela, sailkapenen arabera, Intzako Oier Jauregik bakarrik egingo du aurrera Errendimendu mailako Gipuzkoako txapelketan; bere multzoko bigarren sailkatu da. Alebin kategoriako gainerako pilotariak Mendialdeko txapelketarako sailkatu dira.

Jubenil mailako bikotea, aldiz, Ezker Hormako txapelketatik at geratu da. Alabaina, kategoria horretako pilotariek ez dute atseden askorik izango; bestelako lehiaketak hasiko dira eta. Hilaren 19ko asteburuan, esate baterako, Peru Urdanpilleta jubenilak Ezker Hormako banakako lehen jardunaldia jokatuko du. Eta aurki jubenilek bikotekako zein banakako trinketeko txapelketari aurre egingo diotela aurreratu du Intza KEko arduradun Solanok.

Kirol elkarteko prestatzailea denboraldi hasiera honetan pilotariek egindako lanarekin pozarren dago: "Ederki jardun dira. Iparragirre-Lopez bikoaren kasuan, bi neurketa galdu dituzte berdinketa hausteko azken zatian. Jubenil 1. mailako bikotearena ere pena izan da".

Herritarrak ederki, Behobia-Donostia lasterketan

Ximon Villalobos patinatzailea zein Jon Presa eta Ana Bienzobas korrikalariak herritarren artean azkarrenak izan dira

Txintxarri

Behobia-Donostia lasterketa jokatu zen hilaren 13an. Goizean zehar, Lasarte-Oriako Euskotren geltokian herriko ordezkariak pixkanaka Irunerako trena hartzen ikusi genituen multzoka; euren dortsalaren kolorearen arabera goiz jaiki behar izan zuten lehenek. Behobian batu ziren gainerako parte hartzaileekin; guztira 25.753 korrikalari, 140 bat patinatzaile eta hogei bat *handbike* edo gurpil aulki izan ziren irteera puntuan.

Ikusleen giroak bultzatuta, Nan Oliveras (01.01.29) eta Cristina Silva (01.11.32) kataluniarrak izan ziren korrikalarien artean azkarrenak. 24.182 partaideek ere helmuga igaro zuten; horietatik, 122 lasarteoriatarrak izan ziren.

Herritarren artean Jon Presa izan zen Bulebarrera iristen lehena. 01.08.53 behar izan zituen Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroak egiteko. Emakume mailan, Ana Bienzobas (01.41.12) izan zen.

Patinatzaile mailan, Alberto Aleman eta Idoia Martinez igo ziren podiumeko gorenera. Eta lehen postuetan izan zen patinatzaile kategorian Lasarte-Oria Bai! krosa irabazi zuen Ximon Villalobos herritarra. Seigarren postuan igaro zuen helmuga, 35.29ko denbora eginez.

Jon Presa, helmugara iristen. T. VALLES

Marka pertsonalak ontzen

Pistara jauzi eginez, hilaren 12an, Ostadar Atletismo ataleko kideek luzera jauzi eta xabalina jaurtiketako proba libreak izan zituzten Eibarren. Kadete mailako bost ordezkarik parte hartu zuten eta guztiek hobetu zituzten euren marka pertsonalak.

Oinatz Almagrok luzera jauziko probako lehen saiakeran ondu zuen bere marka, 5,25 m.

Gainerakoek xabalina jaurtiketan eskuratu zituzten marka berriak. Hodei Garciak 33,25 metroko jaurtiketa egin zuen. 30 metroak igaro zituen ere Aiala Ramosek bere azken saiakeran (30,64 m.). Helene Martinek, aldiz, 25,44 metrotara bidali zuen xabalina eta Nora Manzanalek 20,23 metrotara.

Arloko prestatzaile Oscar Goikoetxeak guztien garapena ongi doala adierazi du: "Kirolariak ongi ari dira lanean; indarra hartzeaz gain, teknika hobetzen doaz".

Era berean, Ramosen balentria nabarmendu du: "30 metroko langa igaro duen lehen aldia du eta aurrepauso garrantzitsua da".

Eguzki Arkupe taldeak, ahazteko moduko partida

Oiartzunen aurka jokatu du Eguzki Areto Futboleko lehen taldeak. Herritarrek indartsu ekin diote neurketari, baina ez dituzte lehen minutuko aukerak ongi baliatu. Oiartzunek, aldiz, ederki probestu ditu arrisku egoerak eta 2-9 gailendu da

Txintxarri

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak ez zuen lan xamurra hilaren 11n jokatutako partidan. Esperientzia handiko Oiartzun izan zuen aurrez aurre eta kantxan nabaritu zen. Aurkariak ongi baliatu zituen herriko taldearen ahulguneak eta ate aurreko aukerak gol bihurtu zituen partida 2-9 irabazteko.

Josu Lopezek zuzentzen duen taldeak partida ongi hasi zuen, ordea. Bi jokalditan arriskua sortu zuen Oiartzunen ate inguruan. Tamalez, prestatzaileak nabarmendu bezala, herriko taldeari kosta egiten zaio golak egitea aurten, eta horrek neurketen patua baldintzatzen du.

Maialen Chourraut kiroldegian jokatutako partidan ere horrela izan zen. Etxeko taldeak ate aurrean arazoak zituen bitartean; Oiartzunek golak egiteko aukerak ongi baliatu zituen.

Gauzak horrela, aurkariak jokaldi isolatu batean aurre hartu

Eguzkiko jokalaria, baloia kontrolatu nahian. TXINTXARRI

zuen eta minutu batzuk geroago, korner bateko jokaldi paregabe baten bidez aldea handitu zuen.

Bigarren golak Eguzki Arkupe esnarazi zuen. Talde lanari esker, ate aurrera iritsi eta bere helburua lortu zuen errenta murriztuz, 1-2.

Ez zuen poztasunak asko iraun. Atsedenaldira iritsi baino lehen bi kontraerasotan Oiartzunek baloia ate barrura bidali baitzuen.

Bigarren zatia ez zen hobea izan. Etxekoak aurkariari presioa egiten ari zirela, beste bi gol egin zituen kanpoko taldeak.

Eguzkiko jokalarientzat kolpe latza izan zen; partidaren patua erabakita zegoen eta gainera, ezin zuten Oiartzun geratu.

Bakarkako jokaldi baten ostean, penaltia lortu zuten aurkariek. Ostean, penalti bikoitza ere izan zuten euren eskura. Ez zuten huts egin eta errenta handitu zuten.

Azken minutuetan Eguzkik atezainarekin buruz buruko borroka batean bigarren gola lortu zuen.

Josu Lopez prestatzailearen hitzetan, "ahazteko moduko partida da. Eguzkiren denboraldiko neurketarik txarrena izan da dudarik gabe bai jokoarengatik baita emaitzarengatik ere".

12 urtez azpiko gaztetxoen partidetako baterako irudia. TXINTXARRI

Errugbi eskoletako gaztetxoek partidak jokatzeaz gozatu dute

Bost errugbi taldetako 12 eta 10 urtez azpiko gaztetxoak bildu dira Michelin kirol gunean

Txintxarri

Errugbi Eskolen topaketa izan zen Michelin kirol gunean hilaren 13an. Beltzak RT, Zarautz RT, Txingudi RC, Eibar RT eta Iruña RC taldeetako 12 urtez azpiko eta 10 urtez azpiko gaztetxoak bildu ziren zelaian.

Zaharrenek eman zioten hasiera jardunaldiari. Meleak, *touch*-ak, borrokak... Pausoz pauso kirolean trebatzen ari direla erakutsi zuten.

Txikienek ere euren trebezia erakusteko aukera izan zuten. Lasterketa eta plakaketa ederrak egin zituzten.

Amaieran, guztiek hirugarren denboraz gozatu zuten.

Garaipenak

Egun bat lehenago, 16 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltza taldeak Cumeno Elorrio izan zuen aurrez aurre. Beltzakeko gazteek 17-48 irabazi zuten.

Hernanin, aldiz, Paola Vega herritarra kide duen Hernani taldeak Ligako etxeko lehen neurketa jokatu zuen Universitario Bilbaoren aurka. Partida gogorra izan zen eta 10-7 gailendu ziren etxekoak.

Xuhakan Txakur Elkarteko kideek, lan ederra Guadalajaran

Lasarte-Oriako elkarteko bost kidek Espainiako Kopa lehiatu dute eta horietatik hiruk Espainiako txapelketa ere

Txintxarri

Xuhakan Txakur Elkarteko kideek Erabilgarritasunezko Kirol Mendetasuneko Espainiako Kopa eta Txapelketa jokatu dute Guadalajarako Torrejon del Rey herrian. Hilaren 12an eta 13an Lasarte-Oriako taldeko bost bikotek Kopako lehian parte hartu zuten eta eta hiruk, aldiz, txapelketan.

Martxotik irailera bost probetan –Lasarte-Oria, Guadalajara, Lodosa, Valladolid eta Madril– eskuratutako puntu kopuruari esker sailkatu dira Xuhakaneko bikoteak lehia garrantzitsu horretara. Ordezkaritza lortu duen Euskal Herriko talde bakarra izan da.

Oinarrizko mailan 40 parte hartzaile bildu ziren Kopan borrokan eta Espainiako txapelketan, aldiz, 24. Herriko elkarteak lau kide izan zituen lehian kategoria horretan: Marie eta Etsai, Ana eta Xula, Mattin eta Troi eta Patxi eta Bus. Lehen hirurek gainera Espainiako txapelketa jokatu zuten.

Lehen graduan, aldiz, Bernardo eta Dana izan dira herriko taldeko

Guadalajarara bidaiatu zuten Xuhakan elkarteko kideak. XUHAKAN TXAKUR ELKARTEA

ordezkariak Kopan; guztira, 24 bikote izan ziren gradu horretan.

Lehen postuetan

Guadalajaran guztiek ederki egin zieten aurre txapelketako atal ezberdinei. Eserita eta etzanda mantentzea, jauziak egitea, jaurtitakoa itzultzea edo janariari uko egitea dira gainditu beharreko probetako batzuk.

Marie eta Etsai izan dira sailkapen onena lortu zutenak 100 puntutik 95 bildu zituzten. Horri esker, Espainiako txapelketan 5. postua eskuratu dute eta kopan, aldiz, bederatzigarren izan dira.

Puntuazio onena, aldiz, Mattin eta Troi bikoteak lortu zuen. 97 puntu eginez zortzigarren izan dira bai kopan baita Espainiako txapelketan ere.

Anak eta Xulak 14. eta 16. postuetan amaitu dute Kopa eta Espainiako txapelketa, hurrenez hurren; Patxi eta Bus bikoteak, aldiz, 28. postua (76 p.) Kopan.

Azkenik, Bernardo eta Dana lehen graduko kideek Kopan hemezortzigarren (53 p.) sailkatu dira.

Xuhakan elkarteko arduradun Juan Mari Encinas pozarren agertu da taldeak egindako lanarekin. Hurrengo lehietarako lanean daudela ere aurreratu du.

ZORION AGURRAK

Linda
Zorionak pitxurrina! Saltoka-saltoka azarora iritsi gara :-) segi horren trinko egunero trebatzen! 5 muxu potolo bihotza

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- *txintxarri.eus/zorionagurrak.*
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasoko ditugu.

SUDOKUA

	2		8			6	1	
8		6		1			2	4
1		9		2	6			3
	1	8					6	5
			5	6		4		
5	6			3		9		
	8	1	3	4		2		
3		5	6	8	2	1		7
6		2			9			8

Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 18	GIL
LARUNBATA, 19	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 20	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 21	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 22	URBISTONDO
AZTEAZKENA, 23	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 24	DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINTZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 18
Min. 10º Max. 12º

Larunbata, 19
Min. 08º Max. 10º

Igandea, 20
Min. 10º Max. 14º

Astelehena, 21
Min. 10º Max. 15º

Asteartea, 22
Min. 10º Max. 12º

Asteazkena, 23
Min. 12º Max. 16º

Osteguna, 24
Min. 12º Max. 16º

OHARRA

Biyak Bat elkartearen loteria

Biyak Bat elkarteak bere bazkideei gogorarazten die loteria txartelak erreserbatzeko epea azaroaren 30ean amaituko dela. Abenduaren 1etik aurrera soberan dauden billeteak salgai jarriko dituzte. Horiek eskuratzeko bulegora joan beharko da, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Beltzak RTren Beltzak RTko saskiko txartelak salgai daude

Beltzak RTk jakinarazten du, urtero legez, produktuz betetako Gabonetako otarra zozkatuko duela.

Sari ugari batu ditu Beltzak RTk aurten ere Eguberritako sarian, besteak beste, arrain eta haragi sorta bana, 1 kg. angula, ardo sorta bat, fisioterapia sesioak edo hainbat jatetxe edo tabernatan afariak.

Txartelak ohiko tabernatan daude eskuragarri. Abenduaren 21eko ONCEko azken lau zenbakiekin bat datorren txartela izango da irabazlea. Batzen den dirua Errugbi eskolara bideratuko du Beltzak RTk.

Errigoraren eskertza eta banaketa ordutegiak

Errigora egitasmoaren 2022ko Euskarari Puzka kanpainarekin bat egin duten herritarrei eskerrak eman dizkie Lasarte-Orian otarrak banatzeaz arduratzen den taldeak. "Ederra izan da aurtengoa; zorionak, bihotzez, Errigora egiten duzuen guztioi, bide honetan sinesten duzuen denoi".

Horrekin batera, zehaztu du saskiak datorren asteko astearte eta asteazkenean banatuko dituztela, hilak 22 eta 23, Ttakunenea elkartean, 16:00etatik 20:00etara.

1963an jaiotakoen afaria

1963. urtean jaiotako herritzarrentzat kintoen afaria antolatzen ari dira, azaroaren 26rako, Escalerillas jatetxean. Menuak 45 euro balio ditu. Bertaratu nahi dutenek ES96 2095 5048 10 9121982356 kontu korronte zenbakian sartu behar du dirua, bere izena jarriz. Antolatzaileek urte horretako herritarrak animatu nahi dituzte afarian parte hartzera.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!

San Silvestre lasterketa, sari babesle bila

Hasi dira San Silvestre Lasarte-Oria 2022rako prestaketa-lanak. Lasterketaren antolatzaileek SSLO2019an parte hartu zuten enpresei eskerrak eman nahi dizkie, lasterketa arrakastatsua izan zedin elkarlanean aritu zirelako.

Horren ildotik, San Silvestreren arduradunek aurten ere Lasarte-Oriako enpresa eta denda desberdinak gonbidatu nahi ditu euren produktu edo/eta sariak eskaintzera, lasterketako parte-hartzaileen artean zozketatu ahal izateko. Antolakuntza taldeak jakitera eman duenez, aipamen berezia egingo die parte hartzen duten enpresei bere komunikazio sare desberdinetan. Azaroaren 30a izango da babesle talde honetan sartzeko azken eguna.

Interesa duten komertzio eta establezimenduak probaren web orriaren bitartez jar daitezke harremanetan antolatzaileekin: *http://www.sansilvestrelasarteoria.com/sariak*.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINTZA

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH3 kurtsoan dago eta bestea DBH3.n. Utzi mezua whatsappean zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... Whatsapp zenbakia: 688 740 931.

Etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da Lasarten, goizez astean hiru egunetan aritzeko (astelehen, asteazken eta ostiraletan). Egun bakoitzeko 2 ordu eta erdiko lana litzateke. Harremanetarako zenbakiak: 609 556 338 eta 943-10 16 27.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Kurtsoan zehar haurrak arratsaldez zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako, ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646 82 44 66

ESKELA

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 18

LASARTE-ORIA **Euskaraldia**
Egun horretan hasiko den Euskaraldiaren aurkezpen ekitaldia egingo dute, tarteam txapa jartze kolektiboa. Sarrerak doakoak dira.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA **Erakusketa**
Zurmailu Zurlanketa taldearen erakusketa bisitatzera joateko aukera izango da; ikasleek urtean zehar prestatutako lanak ikusiko dituzte. Hilaren 27ra arte jarriko dituzte ikusgai, igandearekin. Sarrera, doan.
Antonio Mercero gunea. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara, eta larunbatetik igandera, 12:00etatik 14:00etara.

LARUNBATA 19

LASARTE-ORIA **Jaia**
Extremadura Etxeko lagunek VI. Txerri Hiltzearen Jaia egingo dute eta honako egitaraua iragarri dute:
09:30ean, txerri zatikatzea, Extremadura Etxean.
10:30ean, ogi mami dastaketa eta txorizoak nahiz odolkiak egiteko tailerra, Extremadura Etxea.
14:30ean, herri bazkaria, Extremadura Etxean. Menua: txitxirioak, sakramentuak eta meloia.
16:00etan, karaokea, Extremadura Etxean.
21:30ean, afari herrikoia, Extremadura Etxean. Menua: haragi parrillada, entsalada eta tarta.
Extremadura etxea, 09:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA **Literatura**
Aurtengo literatur lehiaketaren sariak banatuko dituzte.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 12:00etan.

IGANDEA 20

LASARTE-ORIA **Jaia**
Extremadura Etxeko lagunek VI. Txerri Hiltzearen Jaia egingo dute eta honako egitaraua iragarri dute:
11:00etan, indarrak hartzeko, perrunillak, salda eta pattarra.

LASARTE-ORIA **Akordeoi jaialdia.** Zero Sette Akordeoi Orkestrak XIX. Akordeoi Jaialdia egingo du larunbat honetan, hilaren 19an. Kultur etxean izango da hitzordua, 19:00etan eta bi gonbidatu arituko dira oholtzan: Radu Ratoi eta Antonio Serrano.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, hilak 19 (larunbata), 19:00etan.

14:00etan, herri bazkaria. Menua: urdaiazpiko haragi errea eta tarta.
Extremadura etxea, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Bony bears filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA **Zinema**
La consagración de la primavera filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 19:30ean.

ASTELEHENA 21

LASARTE-ORIA **Emanaldia**
Santa Zezilia Eguna ospatzeko, Xumela koruak eta Oaintxe in deu txarangak emanaldia egingo dute elkarrekin, bezperan. Herriko txokoak girotuko dituztela iragarri dute.
Oriarte Landaberritik abiatuta, 19:00etatik 20:30era.

ASTEAZKENA 23

LASARTE-ORIA **Hitzaldia**
Adineko emakumeak: matxismoak euren bizitzetan duen eragina ONEKA, Euskal emakume pentsionisten plataforma.
Biyak Bat elkartea, 17:30ean.

OSTEGUNA 24

LASARTE-ORIA **Hitzaldia**
Beldur Barik lehiaketaren sariak banatuko dituzte.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 25

LASARTE-ORIA **Ikuskizuna**
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Eguna dela-eta, elkarretaratzea egingo dute.
Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA **Ikuskizuna**
Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Egunaren egitarauaren barruan, *Luze edo motz* antzezlanaren emanaldia egingo dute. Sarrerak 3 euro.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Okendo Zinema Taldeak zineforuma egingo du: *Moonage daydream* filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 22:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Bony bears'
Larunbata 19
17:00.

'La consagracion de la primavera'
Larunbata 19
19:30.

'Moonage daydream'
Ostirala 25
22:00.

USURBIL

URBIL

'Black Panther: Wakanda Forever'
Ostirala 18
16:00, 17:00, 18:05, 19:35, 20:35, 21:35.
Larunbata 19
16:00, 17:00, 18:05, 19:35, 20:35, 21:35.
Igandea 20
16:00, 17:00, 18:05, 19:35, 20:35, 21:35.
'Black Adam'
Ostirala 18
16:15, 19:10.
Larunbata 19
16:15, 19:10, 22:05.
Igandea 20
16:15, 19:10, 22:05

'El cuarto pasajero'
Ostirala 18
16:35, 19:15, 21:45.
Larunbata 19
16:35, 19:15, 21:45.
Igandea 20
16:35, 19:15, 21:45.
'Lilo, mi amigo el cocodrilo'
Ostirala 18
15:45, 18:25.
Larunbata 19
15:45, 18:25.
Igandea 20
15:45, 18:25.
'13 exorcismos'
Ostirala 18
21:05.
Larunbata 19
21:05.
Igandea 20
21:05.
'Los renglones torcidos de dios'
Ostirala 18
19:05.
Larunbata 19
19:05, 22:30.
Igandea 20
19:05, 22:30.
'Smile'
Ostirala 18
16:40.
Larunbata 19
16:40.
Igandea 20
16:40.
'Tadeo Jones 3. La tabla esmeralda'
Ostirala 18
15:55.
Igandea 19
15:55.
Igandea 20
15:55.
'Hopper, el polloliebre'
Ostirala 18
16:50.
Igandea 19
16:50.
Igandea 20
16:50.

LABURPENA

'Smile
Zuzendaria: Parker Finn. **Gidoia:** Parker Finn. **Argazkia:** Charlie Sarroff **Ekoizleak:** Temple Hill, Paramount Players, Paramount Pictures. **Herrialdea:** AEB (2022). **Iraupena:** 115 minutu. **Generoa:** Beldurrezkoa Thrillerra, Thriller psikologikoa. **Musika:** Cristobal Tapia de Veer. **Aktoreak:** Sosie Bacon, Jessie T. Usher, Kyle Gallner, Caitlin Stasey, Kal Penn, Rob Morgan, Judy Reyes, Gillian Zinser, Kevin Keppy, Scot Teller, Nick Arapoglou, Sara Kapner, Setty Brosevelt, Jerry Lobrow, Perry Strong, Vanessa Cozart, Shevy Berkovits Gutierrez.

Gertaera beldurgarrien lekuko

Paziente batekin izandako gorabehera arraro eta traumatiko bat ikusi ondoren, Rose Cotter doktorea, hitzez azaldu ezin dituen gertaera beldurgarriak izaten hasi da. Beldurrak bere bizitzako alderdi guztiei eragiten dien heinean, Rosek bere iragan korapilatsuari aurre egin beharko dio bizirauteko, eta errealitate beldurgarri horretatik ihes egiteko.

Beldurrezko thriller psikologiko bat ikusteko aukera izango dute ikusleek.

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ ***Jaiotze data:*** _____

Helbidea: _____ ***Herria:*** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Data eta Sinadura

☐ *Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez*

Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkidetzak irauten duen bitartean edota betebehar legalak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu haueк ez dira hirugarren pertsonei eskainiko betebehar legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daiteke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiria aurkeztuz, edo posta elektroniko bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkidetzak: *ttakun@ttakun.eus* • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48

EUSKARALDIA
HITZEZ EKITEKO GARAIA

eta ekin!

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

HASIERA EKITALDIA
LASARTE-ORIA

Data: 2022-11-18 Ordua: 19:00-20:00
Lekua: Manuel Lekuona Kultur Etxean

AHOBIZI

BELARRIPREST

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo duzu.
Euskaraz ulertzen ote duten ez dakizunean lehen hitza, beti, euskaraz izango da; euskaraz ulertzen badu, euskaraz jarraituko duzu.
Gakoa ahal den guztietan euskaraz egitea izango da.

Hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu eta zeuk ere horrela egingo duzu nahi bestetan. Jarrera horrek euskararen ateak zabalduko dizkizu eta denon artean erabilera handituko dugu.
Gakoa jokaeran dago eta ez gaitasunean.